LEGAZPIKO AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

2018ko maiatzaren 17an, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

ZORUA ETA DRAINATZE IRAUNKORREKO SISTEMAK

- Zer landu eta ikasi dute aurtengo ikasturtean Legazpiko ikasleek zoruari eta bere kudeatzeari buruz?
- Joan den martxoko foroaren ondoren, drainatze iraunkorreko zein sistema aplika daitezke Legazpin?

1. TAILERRAREN HELBURUA: Agenda 21eko Foroa eta Legazpiko Eskola-agenda 21, gaur zoruan zentratuko dira

Urtero, garai honetan, Legazpiko Eskola-agenda 21eko ordezkariak hartzen ditugu Agenda 21eko Foroan eta gaur ere halaxe izan da. Eta elkarrekin gaur zoruari jarri diogu arreta, bi ikuspegitik.

Zehazki:

Eskola-agenda 21etik

- Domingo Agirre eskola, Haztegi ikastola eta Olazabal institutuaren ordezkariek, Nuria, Asier eta Eric ikasleek gai hori ikasturtean zehar zer eta nola landu duten azaldu dute.

Ondoren, Agenda 21eko Foroak

- Zoruarekin zuzenean lotuta dagoen gai bat berreskuratu du, martxoko tailerrean landu genuen gaia hain zuzen: Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak (SUDS). Hauxe gaurko helburua: lan teknikoan zehar Legazpin aplika daitezkeen zein aukerak identifikatu dituzten partekatzea eta horretaz hitz egitea.

Eta egia esan oso saio interesgarria izan da, entretenigarria eta asko ikasi dugu!
Ikus dezagun jarraian.

2. NORTZUK? Foroa eta Legazpiko ikastetxeak

Guztira **20 pertsona** elkartu gara, **9 emakume eta 11 gizon**. Talde anitza, gaian interesatuta eta tailerrean egin diren ekarpen desberdinekin asko ikasteko aukera izan duena. Ezin hobe!

Eskerrik asko guztioi!

- **Herritarrak:**

  Manuel Fernandez (Nagusilan) - Floren Gutierrez – Juanjo Zubillaga (Buztintegi) – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Mari Cruz Lizarazu – Pilar Makibar – Amaia Andueza.

- **Eskola-agenda 21eko irakasle eta ikasleak:**

  Nuria Caballero eta Asier Leizeaga (Olazabal institutuko ikasleak) – Eric Retolaza (Haztegi ikastolako ikaslea) – Koro Zabaleta (Olazabal institutuko irakaslea) - Maite Odriozola (Haztegi ikastolako irakaslea) - Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskolako irakaslea).

- **Udal arduradun politiko eta teknikoak:**

  Eric Galvez (zinegotzia) – Alberto Bezunartea (zinegotzia) - Roberto Alonso (zinegotzia) - Ane Mendinueta (udal arkitektoa) - Inma Hernandez (ingurumen teknikaria).

- **Laguntzaile teknikoak:**

  Rafa Etxebarria eta Garo Azkue, 'Endara Ingenieros' enpresakoak; Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea taldekoak, dinamizazio lanetan.

3. Albisteak

Taldeari ongietorria egin eta eskerrak eman ondoren, Inma Hernandez teknikariak ohar labur batzuk partekatu ditu taldeko kideekin:

- Maiatzaren 11n, Bidezko merkataritzaren eguna ospatu genuen.

  90 pertsonek, irakurketa errazaren irizpideen arabera idatzitako "La música del viento" liburua irakurri zuten ozen.

- Laster, kanpaina bat egingo dugu auzoan bertan konpost egitea sustatzeko.
- Maiatzaren 22an eta ekainaren 4an, 2 hitzaldi eskainiko dira energia hobeto erabiltzeari buruz.
- Urtero legez, Fokatu Urola Garaia argazki-lehiaketa iragarri da.

  Aurtengo gaia lurzorua izango da; eta maiatzaren 25era arte aurkeztu ahal izango dira argazkiak, heldu mailan nahiz gazte mailan.



- Hazi ekologikoak ekoizteko hitzaldia ekainaren 13ko asteazkenera atzeratu da.

4. LANDUTAKO EDUKIAK

Albisteak entzun ondoren, zuzenean ekin diogu gaia aztertzeari.

Eskola-agenda 21etik: ikasturteko lan-prozesua eta emaitzak

Nuriak, Asierrek eta Ericek parte hartu dutenean adierazitakoaren arabera, "gure udalerrian dugun lurzorua ezagutu eta aztertu dugu eta hura babesteko zer egin dezakegunari buruz hausnartu dugu".

Zehatzago esanda:

Domingo Agirre eskola:

- Aztertu duguna: lurzoru mota desberdinak aztertu ditugu eta horietan zein animali bizi diren ikusi dugu; horrezaz gain, Urtatza errekatxoko tarte bat eta inguruko lurzorua aztertu dugu.

Haztegi ikastola:

- "Baserritik platerera", garaiko produktuak eta horiek kontsumitzearen garrantzia landu dugu; baita herriko merkataritza ere.

Olazabal institutua:

- Horren haritik, herriko produktuak iragartzeko ideiak landu ditugu.
- Gainera, hazien "bonbak" prestatu ditugu eta lurzorua aztertu dugu.

Ikasturtean zehar egindako lanak emaitzak eman ditu eta **hauek dira** gaur goizean egin dugun Eskola-agenda 21eko Foroan **ikastetxeok gure gain hartzen ditugun konpromisoak eta Udalari egiten dizkiogun proposamenak.** Eta orain Foroarekin partekatzen ditugu guzti horiek:

Legazpiko ikasleok eta ikastetxeok gure gain hartzen ditugun konpromisoak:

- Loreak eta zuhaitzak babestuko ditugu.
- Ez dugu lurrera zaborrik botako; zabor hori motxilan sartuko dugu.
- Txakurrak ditugunok, haien gorotzak jasoko ditugu beti.
- Zuhaitz egunean eta Erreka egunean hartuko dugu parte.
- Natura eta ingurunea errespetatuko ditugu.
- Herriko produktuak erosten saiatuko gara, herriko ekonomia sustatzeko; eta hori zabalduko dugu.
- Ezagutzen ditugun pertsonak "Bertatik Bertara" proiektuan parte hartzera animatuko ditugu.
- Erosten ditugun produktuak nondik datozen begiratuko dugu eta herrikoak eta garaikoak kontsumituko ditugu.

Legazpiko Udalari egiten dizkiogun proposamenak:

- Lurzorua zaintzea, parkeak babestea eta era naturalean uztea, etxebizitza gehiago eraiki gabe eta zuhaitzak moztu gabe.
- Berdeguneetan kartelak jartzea jendeak belarra zapaldu ez dezan.
- Ibaien inguruan zuhaitzak landatzea, bertakoak batik bat , eta ibai ondoko zonaldeetan zakarrontziak jartzea.
- Erabiltzen ez diren eraikinak botatzea lurzorua lortzeko.
- Herriko produktuak saltzeko lokal bat irekitzea, baserritarrei erraztasunak emanez.
- Urtatza parkea berritzea: mahai eta iturri gehiago, saskiak edo ateak eta gimnasia egiteko tresnak.

Foroak eta parte hartu duten pertsonek, ikasleek egin duten lana aintzat hartu eta eskertu dute, batez ere urtean zehar ikasteko eman duten denbora baloratu dute. Modu berean partekatu diren iruzkinak eta galderak jaso ditugu:

Elkarrizketak Agenda 21eko Foroarekin

Galderak ikasleei:

- Zergatik proposatu duzue belarra zapaltzea ez onartzea?
  Erantzuna: lorategi batzuk horregatik egoera txarrean daudela antzeman dugulako.
- Nola egiten dira hazien "bonbak"?
  Erantzuna: buztina eta konposta erabilita, ondoren 2 hazi mota sartuta. Datorren ikasturtean horien jarraipena egingo dugu landatu ditugun guneetan

Gainera:

- Marigorringoak zaintzearen garrantzia azpimarratu da, funtzio biologiko garrantzitsua dutelako hainbat intsektu hiltzen.
- Mailaka ikasle guztiek hartu dute parte programan eta horrek balio handia du.
- Eta modu berean adierazi da ikastetxeek eta Udalak Eskola-agenda 21ean urtero hartzen diren konpromisoen jarraipena egiten dutela.

Lan bikaina neska-mutilak! Eta eskerrik asko Nuria, Asier eta Eric, egindako guztiari ahotsa jarri diozuelako.

Agenda 21eko Forotik: SUDS eta bere aplikazioa Legazpin

Segidan, Ane Mendinuetaren –udal arkitekto– eta Rafa Etxebarriaren –'Endara Ingenieros' taldeko kidea– eskutik beste bide batetik hurbildu gara zorura: drainatze iraunkorreko hiri-sistemak.

Lehenbizi Rafak, modu argigarrian eta 3 txerritxoen ipuinaz baliatuz, drainatze iraunkorreko hiri-sistemak zer diren ekarri digu gogora:

Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak euri-urak jasotzeko sarean integratzen diren elementuak dira; eta haien helburua, lurrean urak jaso, filtratu/araztu, gorde, garraiatu, biltegiratu eta/edo iragaztea da, uraren zikloa berreskuratuz.

Martxoaren 15eko tailerretik hona, zertan egin da aurrera gai horretan Legazpin?

- Legazpiko Udalak eta 'Endara Ingenieros' enpresako taldeak zonaldeka aztertu dut udalerria

  Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak aplikatzea baldintzatzen duten hainbat kontu aztertu eta baloratu dira, horietan artean lurzoruaren iragazkortasuna eta iragazteko gaitasuna. Eta horren arabera, ondorengo argazkia lortu dugu:



Modu berean gai zehatzetan jarri da arreta: areketan segurtasun puntu beltzak dauden; edo gai horretan jendea sentsibilizatzeak duen garrantzia. Rafak beste leku batzuetan, Japonian adibidez, egin diren esku-hartzeen adibide batzuk eman ditu eta, agian, Legazpiko drainatze iraunkorreko hiri-sistemarekin lotu daitekeen logoa sor daitekeela esan du.

Rafaren parte hartzeak interesa piztu du eta parte hartzaileek hainbat galdera egin dituzte:

Elkarrizketak Agenda 21eko Foroarekin

- Ba al daude Legazpin segurtasun puntu beltzak areketan?

  Rafaren galderari parte hartzaileek puntu batzuk seinalatu dituzte baina arazo horiek errekatxoekin daude lotuta hormigoizko egiturekin baino gehiago, beraz, ez dira aplikagarriak gelaxkako drainatze iraunkorreko hiri-sistemak.

- Udalak lurzoru publikoan obrak egitea aurreikusita baldin badu, Foroaren ustez garrantzitsua da obra horiek aprobetxatzea horrelako sistemak integratzeko –adibidez, lauza iragazleak edo beste batzuk–.

  Adibidez, Txorronea inguruan bizikletetarako egokituko den gunea.

- Nola dabil eta zein abantaila ditu estalki berdeak?

  Rafak honakoak azpimarratu ditu: emaitza termiko onak ditu, asko irauten du, egon daitezkeen aurrekontu desberdinetara egokitzeko aukera dago eta eguzki-energiaz baliatzeko sistemekin bateragarria da. Bestalde, partikularrek horiek erabiltzeko diru-laguntzak oraindik ez badaude ere, gai hori aztertzen ari da.

  Legazpiren kasuan, Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak ez ditu estalki berdeak debekatzen, salbuespen batzuetan izan ezik (eraikinak babestu beharra dagoenean)

- Horrela, begirada tekniko batetik drainatze iraunkorreko hiri-sistemak aplikatzeko aukera batzuk identifikatu dira eta Udalak horietan egin dezake lan aurrerantzean.

  Ane Mendinuetak azaldu egin ditu aukera horiek, Udalak gai horretan hartu duen konpromisoaren baitan: identifikatu diren aukeren artean 3 aurreproiektu landuko dira drainatze iraunkorreko hiri-sistemak aplikatu ahal izateko.

Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak aplikatzeko aukera posibleak Legazpin:

- Aparkalekuak

  Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak lagungarriak izan daitezke euri-uraren abiadura moteltzeko, euri-urak arazteko eta infiltratzeko –kokapenaren arabera–. Aplikagarria da baita ilarako aparkalekuetan ere.

- Estalki berdeak eraikinetan (jendea bertan bizi edo ez).

- Drainatze sistema Lakiolako aterpeko zelaian.

  Antzeko kasua izan daiteke tiro-zelaiko parkearena baina kasu honetan ezin da drainatze iraunkorreko hiri-sistema bat aplikatu kutsatuta egon daitekeen lurra delako.

- Artelatz drainatzaileen sistemak iragazgaizte handiko zonaldeetan.

  Esku-hartze hori, hirigintzako esku-hartze berrietan da batik bat erabilgarria.

- Puntu beltzak euri-uren sarean.

  Eremu hori Gipuzkoako Urak enpresaren eskumenekoa da. Udalak harekin koordinatu beharra dauka eta lanean dihardute.

- Saneamenduko sarera lotuta ez dauden landa-guneetan arazketa-sistemak ezartzea.

  Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak aplikatzerakoan, egokiak izan daitezke ur fekaletarako eraginkorrak diren fitoarazketako landareekin –ez dira bertakoak izaten– osatutako zutikako hezeguneak.



Horren haritik, **Legazpiko Udala dagoeneko lanean ari da** 2 proiektu zehatzetan drainatze iraunkorreko hiri-sistemak sartzeko:

- Latxartegin, ikastolako haur-parkean artelatz drainatzaileak ezartzea.
- Laubide auzoko parkea estaliko denean estalki berdea eraikitzea.

- Hauxe da segidan sortzen den galdera: Nondik jarraitu? Antzemandako aukeretatik, zeintzuk hartu daitezke Udalak 3 aurreproiektu egin ditzan?

Foroarekin batera egin dugun hausnarketa eta gero, hainbat gako jasoko ditugu erabaki hori hartzerakoan Udalari laguntzeko:

Elkarrizketak Agenda 21eko Foroarekin

- Inportantea da landa-guneak arazteko erantzunak bilatzea.
- Eraikin pribatuetan teilatuak berritzea erabakiko dutenean, plantea daiteke Udalaren aldetik estalki berdeak jartzea sustatzea?

  Zehazki, Domingo Agirre eskolaren ondoan dauden eta ziklo-genesiaren ondorioz teilatua hondatuta duten etxeak aipatu dira. Diru-laguntzak ematea azter daiteke, zuzeneko diru-laguntzak ematea oso korapilatsua ikusten delako.

- Industrialdea esku-hartzeko lehentasunezko eremua dela dirudi, iragazgaiztasun handiko eremua delako.

  Eta era berean hori konplexua dela aipatu da, zati handi batean lur eta partzela pribatuak direlako. Beraz, jarduteko tarte txikia egongo litzateke adibidez, infiltrazio bidezko drainatze iraunkorreko hiri sistema ezartzeko ; baina aztertu egin daiteke zoru publikoan ijeztea erraztea.

  Bestalde, industrialdeetan estalki urdinak egon ohi dira: nola susta daiteke horiek estalki berde bihurtzea, jabetzak horietan esku-hartzea erabakiko balu?

5. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Puntual, amaitutzat eman dugu tailerra. Eta pozik amaitzen dugu, espazio publikoa hobetzeko aukerak areagotzen dituen gai interesgarri bati buruz asko ikasita goazelako etxera; ezin ahaztu, gainera, aukera horiez baliatu behar dugula klima-aldaketa arintzeak eta klima-aldaketara egokitzeak planteatzen duten erronkaren aurrean.

Guztioi, eskerrik asko!

Ekaineko saiora arte, ondo izan!